KONPARAZIOA:

1. Hogei urterekin zuen aldean lan gogorrak egiten genituen.
2. Modako aldizkarietan ikusten direnak bezain ikusgarriak dira zuen altzari berriak.
3. Irakurketa honek ez dauka beste horrek adinako interesik.
4. Norberak egitea bezain nekagaria da alferrak noiz egingo duen zain egotea.
5. Liburu kontuan, ez legoke kalte handiagorik zenbait txoriburuk idazten duten guztia sinestea baino.
6. Ez zaio janari onak jatea baino gutxiago gustatzen ardo finak edatea.
7. Hamar mila pezeta gorabehera, urte amaieran ez gara orain baino txiroago izango.
8. Nahiago dut hamaika urte genitueneko begirada xaloa oraingo etsipenezkoa baino
9. Orrialde haiek liburu bat osatzeko adina ez zirenez, testua luzatu egin behar zuela zioen.
10. Nire gurasoak zuenen aldean ez dira batere modernoak.
11. Mikelek ez dauka Aitorrek adinako trebetasunik.
12. Ez omen dago gizaki zoriontsuagorik osasuna, maitasuna eta dirua dituena baino.
13. Nik emazte tristea baino allargun alaia nahiago dut.
14. Nire kotxea zurearen aldean txikia da.
15. Gaur ez dabik atzo adinako haize zakarrik.
16. Amonak gogokoago zuen besteek nola jaten zuten ikustea berak mahaian eserita jatea baino.
17. Ez dago emakume hori baino aberatsagorik.
18. Ebakuntzaren ondoren ez dabil berak uste bezain sasoiko/indartsu/...
19. Bi etxe erosteko adina/lain/beste... diru al du, ba?